


Txekor jatea, bihar

Pilotalekuan
160 lagun
inguru
elkartuko dira ▶ 5



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Larunbata ▶ 2007-04-28 ▶ V. urtea ▶ 1.146. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Hiru hilabetez itxita eduki ostean, asteartean irekiko dituzte Aralarko larreak

ABALTZISKETA ▶ Enirio-Aralar mankomunitateak jai handia antolatu du Larraitz auzoan

EGITARAUA ▶ Trikitilariak, zaldiezte erakustaldia, bertsolariak eta herri kirolak, besteak beste ▶ 2

TOLOSA ▶

Dantza gala izango da bihar ikusgai Leidor aretoan

16 dantza eskola ariko dira denera taula gainean ▶ 3



Egungo lan baldintzek «osasan txarra» dutela salatu du LAB sindikatuak

TOLOSALDEA ▶ Lan Osasunaren Nazioarteko eguna da gaur, baina ospakizunak alde batera utzi eta LAB sindikatuak aldarrikapenerako aitzakia bezala erabili zuen atzokoan. Hala, ordubeteko geldialdiak egin zituzten atzo eguerdian, lantokietan eta udal-txeetako atarietan. A. IMAZ / E. EZBIZA ▶ 2

LEITZA ▶

San Cristobalen aurka bihar Aurrera, etxean, 7



ORIXE

BAILARAKO
ESKAINZARIK
ZABALENA

BATXILERGOA
Teknologia
Natura eta Osasun Zientziak
Gizarte eta Giza Zientziak

ORIXE
Bigarren Hezkuntzako Institutua

943 65 13 87
E-mail: 012900aa@hezkuntza.net www.orixa.net

Aurrematrikula: Babilergoa: *apirilaren 23tik maiatzaren 4ra*

ABALTZISKETA ▶ NEKAZARITZA

Aralarko larreak irekiko dituzte datorren asteartean

Hiru hilabetez ganaduarentzako itxirik egon ondoren, berriro zabalduko dituzte; hau aitzakiatzat hartuta jai handia antolatu du Enirio-Aralar mankomunitateak

ESTI EZEIZA

Urteko sasoi honetan ohikoa den bezala, asteartean zabalduko dituzte Aralarko larreak ganaduarentzat. Hiru hilabetean itxirik egon ondoren, festa giroan emango diete irekiera Larraitz auzoan. Hamargarren urtez antolatzen du ekitaldi hau Enirio-Aralar mankomunitateak. Eguneke ekitaldiez gain, saski, abarka, ardi gazta, ukendu, liburu... ez hornituriko salmenta postuak izango dira Abaltzisketako auzo honetan.

10:00ak aldera bi suziri bo-teaz iragarriko dute larreak irekitzen direla. Hala ere, Larraitzeko sarbidetik ez dira igaroko abelburuak, hemen nitrogeno bidez markatu bakarrik egingo dituzte. «horrenbeste jenderekin abereak aztoratu egiten baitira», azaldu



Aurten ere dantza emanaldiak ikusteko aukera izango da. E. EZEIZA

dute antolatzailerak. Dena den, gainontzeko sarreretatik eramango dituzte larrera abereak, Zaldibiko lurretatik esaterako.

Eguraldiak laguntzen badu Larraitzen egunpasa egiteko aitzakia polita izan daiteke asteartekoa. Gainera, aparkalekuei dagokionez, joan den urtean izan zituzten arazoak ikusita, Abaltzisketa eta Larraitz bideko errepidean kotxean uzteko zelai bat prestatu dute.

Jaia baino gehiago

1409. urtean sortutako Enirio-Aralar mankomunitateak 15 herri biltzen ditu, eta 3.500 hektarea lursail batzen dituzte denera. 1990ean hitzartutako lege batetik dator larre irekieraren ospakizuna. Izan ere, garai horretan erabaki zuten mankomunitateko kideek, urte

EGITARAUA ▶

MAIATZAK 1, ASTEARTEA

10:00. Larreen irekierarekin batera, trikitaliak eta Tolosako gaiteroak.

11:00. Mikel Almandozen zaldi-hezte erakustaldia. Ondoren, Sarako Xanoren makil-dantza emanaldia eta Nafarroa eta Iparraldeko abeslari taldea. Gero, Alaitz Sarasola eta Bixente Gorostidiren eskutik bertso saioa izango da. Hauekin batera izango da Mari Jose Sardon harri-jasotzaileak.

17:00. Egunari amaiera emateko, erromeria Jexuxen jaspanarekin.

guztiaz irekita egon beharrean, komenigarria zela hiru hilabetez behintzat itxita egotea, larreak indartzeko. Hori dela eta, egun, maiatzaren 2an irekitzen dituzte landa hauek, eta urtarrilean berriro itxi. Hala ere, ganaduaren gehiengo urriaren amaierarako jaisten dute. Joxe Antonio Irastorza, Enirio-Aralar mankomunitateko basozainaren esanetan 18.500 ardi, 600 behor eta 700 behi inguru igaroko dira Aralarko larreetatik aurten.

EKONOMIA ▶



«Osasun txarra dute egungo lan baldintzek»

E. Ezeiza ▶ Lan Osasunaren Nazioarteko eguna da gaur, baina ospakizunak alde batera utzi eta aldarrikapenerako hartu du LABek aitzakia hau. Izan ere, azken denboraldiko lan istripuen datuak begiratu-ta «ospatzeko ezer ez» dagoela deritza sindikatu abertzaleak. Hala, atzo 12:00etatik 13:00etara geldialdiak egin zituzten hainbat lantoki eta udaletxeetako atarietan. A. I./E. E.

hilberria ▶



Isidoro Jauregi Jauregi

Laskorain Ikastolaren ibilbidean jasotako lankidetzeta eta laguntza eskertuz

Laskorain Ikastolako guraso, ikasle eta langile

TOLOSA, 2007ko apirilaren 27an

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAn jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

DANTZA ▶

Dantza gala, bihar goizean Leidorren

Gipuzkoako Dantza Profesionalen elkarteak antolatu du ekitaldia



Biarritz Ballet Junior ere ariko da Leidorren, bihar. HITZA

INIGO TERRADILLOS

Gipuzkoako Dantza Profesionalen elkarteak antolatuta, dantza gala izango da bihar ikusgai Leidor aretoan, 12:30etik aurrera. Ikuskitzen berezi hau ikusteko sarrera 3 euro ordaindu beharko dira.

Ekitaldi hau Gipuzkoako Dantza Profesionalen elkarteak apirilaren zehar antolatu dituen ekitaldietan azkena izango da. Izan ere, Dantzaren Nazioarteko eguna apirilaren ospatzen denez, egun bateko ospakizuna egin ordez, hilabete osoan antolatu dituzte, eta azkena Tolosan egingo dute, Dantza Gala, hain zuzen. Ikus-

kizun hau, pasa den urtean Donostiako Kurasaalen ikusi ahal izan zen. Ikuskitzen hone aurretik, atzo, Dantzaren Sariak banatu zituzten Donostian, eta irabazleen artean Jorge Nozal (NDT) izan zen, errebelazio saria, ibilbide artistikoari saria eta dantzari eskainitako dedikazioagatik saria eman zituztena, eta bihar Leidorren ikusteko aukera izango da dantzan.

Dantzari honetaz gain, ordea, 16 dantza eskola desberinetako dantzariak ere ikusi ahal dira taula gainean, eta horien artean eskualdeko dantzari ugari ere izango dira. Bi ordu inguruko dantza saioaz gozatzeko aukera izango da.

HEZKUNTZA ▶



Pirritx eta Porrotxen saioa «oso arrakastatsua»

Erredakzioa ▶ Laskorain Ikastola 40. urteurrena ospatzen ari da aurten eta behar bezala ospatzeko ekitaldi ezberdinak antolatzen ari dira. Aurreko larunbatean Pirritx eta Porrotxen saioa antolatu zuten Leidorren eta «izugarritzko arrakasta izan zuen, bertara hurbildutako haurrak zein gurasoak primeran pasa zutelarik». Bestal-

de, bihar mendi ibilaldia antolatu dute Belkoainera. 09:30ean Berazubín edo 10:00etan Adunako plazan elkartuko dira eta ordu eta erdiko igoera egingo dute. Ibilbidean Belkoain menditorrean dagoen trikuharria ikusteko aukera izango dute. Adunaz bazkalduko dute eta ondoren jolasak antolatuko dituzte. HITZA

HEZKUNTZA ▶



Hirukidek elkartrukea egin du Polonian

Erredakzioa ▶ Hirukideko Batxilergoko 1. mailako 53 ikasle eta ikastetxe hiru irakasle urtero Polonian burutzen duten elkartrukean izan dira apirilaren 10etik 22ra. Aurten Poznan hirian izan dute egoitza eta Krakobian egoteaz gain Munich, Praga, Berlin eta Paris bisitatu dituzte.

Poloniarrek ikasturte hasieran izan ziren Tolosan eta bidaia honekin elkartrukea guztiz osatu dute. Hirukideko ikasleek hango familien etxetan hartu dute ostalua eta Poloniako geografia nahiz kultura ezagutu ahal izan dituzte. Poloniarrek bertan dantzaldiak eskaini zizkieten. HITZA

AZPIEGITURAK ▶

Argindar mozketak maiztaren 1ean

Tolargik instalazioetan hobekuntza eta mantenimendulanak egiten dabilenez, maiztaren 2an, argindar mozketak egingo ditu. 08:20etik 11:00etara izango dira mozketak Belate Ibiltokia 1 zenbakian.

KIROLAK ▶

Herriarteko Pilota Txapelketa bihar Beotibarren

Beotibar Zesta-Punta taldean ari diren tolosarrek Herriarteko Pilota Txapelketan parte hartuko dute. Hain zuzen ere, bihar hasiko da Tolosan 10:00etan, Beotibar pilotalekuan, eta aurkariak Andoingoak izango dira.

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa).
Pisua San Frantzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak. Araba etorbidean irekia eta lurren itxia.
Salgai (Tolosa).
Pisua "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa). Lokalak Agintari kalean eta Kale Nagusian.
Salgai. Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak lbaran.
Salgai (Tolosa).
Garajeak. Leidor azpian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

ERRETENGIBEL SALGAI
1.- Solana 4. zenbakiko behe solairuko bi lokal lote bakarrean, lehiaketa bidez.
2.- Toriles Eraikuntzan behe solairuko lokala, enkante bidez.
Informazioa:
ERRETENGIBEL,
Plaza Zarra 10 behea.
Tel.: 943670892
Posta elektronikoa:
erreten@tolosakoudala.net

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ABRAHAM OLANO ▶ TITAN DESERT PROBAKO PARTE-HARTZAILEA

«Esperientzia bezala bizitzera goaz, proba nolakoa den ikustera»

Abraham Olano txirrindulari ohi anoetarra Titan Deserten parte hartzen ari da

IMANOL GARCIA

Abraham Olano (Anoeta, 1970) ez da geldirik egoten den horietakoa. Oraingo honetan Titan Desert proba egingo du. Atzo ziren Bartzelonatik abiatzekoak, Marokora joan eta lehenengo etapa egiteko. Bost etapa ditu osotara Titan Desertek, mendiko bizikletako Dakar probatzat izendatu dutena, hau da, desertuan rally bat egitea bizikleta gainean.

Nolatan animatu zinen proba honetan parte hartzera?

Melchor Maurik deitu zidan. Talde bat osatu nahi zuen parte hartzeko eta ea animatuko nintzen parte hartzera. Horrela sortu zen aukera. Nik baietz esan nion. Mauri, Jordi Villalong eta hirurok hartuko dugu parte Spiuk-Tau taldean.

Inoiz hartu duzu parte antzeko probetan?

Ez, lehenengo aldia da. Etapa bakoitzean ibilbide bat egin behar dugu, batez ere desertu-



AUTOR ELDUAIEN

eremuak zeharkatuz. GPSa eramango dugu puntu batetik bestera iristeko eta horretan Villalong da aditua eta bere menpe egongo gara. Normale-

an hirurok batera egingo dugu ibilbidea.

Eta zeren bila zoaz horrelako proba batean?

Abentura pixkatzen bila goaz,

lehiatzera baino. Ibilbideak egitean marka batzuetatik igaro behar gara eta horiek topatzeko GPSa erabili behar dugu. Ez dut inoiz horrelakorik egin eta probatzea nahi nuen.

Halere, ondo bazoazte postu on bat lortzeko lehiari sartuko zarete?

Presiorik gabe goaz, probatzen. Hasieran gure burua nola dagoen ikusi behar dugu. Esperientzia bezala bizitzera goaz, proba nolakoa den ikustera. Gero, ondo bagoaz, ikusiko dugu gure burua estutzen dugun ala ez.

Flisikoki ondo egon beharko duzu horrelako proba baterako. Nola aritu zara entrenatzen?

Bizikleta gainean ezin izan dut asko entrenatu. Unipublicerentzako ari naiz lanean eta dezentze bidaiatu behar dut. Ez da beti posible bizikleta garraiatzea eta horregatik batez ere korrika egiten aritu naiz entrenamendu gisa.

IRURA ▶

Kultur Asteari begira martxan dago argazki lehiaketa

ERREDAKZIOA

Kultur Astearen (maiatzaren 12tik 19ra egingo dute) ekitaldien baitan, Irurako Udalak aurten ere argazki lehiaketa antolatuko du. Aurtengo lehiaketa desberdina izango da. Argazkiak ez dira egun bakar batean ateratu behar. Maiatzaren 8a bitartean aterako argazkiekin har daiteke parte.

Gaiari dagokionez, Iruran azkeneko egunetan gertatutakoei edo egindako ekitaldiei buruzko argazkiak balio dute. Adibidez, Ikastola berriaren lehenengo harria jartzeko ekitaldiak, pilota txapelketak, ikastaroak, jaunartzeak... Edo baita ere Iruratik kanpora baina Irurako jendeak azkeneko egunetan parte hartutako ekintzetako argazkiak, hala nola, lasterketak, ibilaldiak, ospakizunak edo antzekoak.

Lehiakideak Irurako haur eta gazteak izan behar dute eta bi mailatan banatuko dituzte. A maila, LH1etik LH4 bitarteko ikasleak, eta B maila, LH5etik DBH4ra bitartekoak. Izen-ematea liburutegian edo gaztelekuan egin behar da, arratsaldean, maiatzaren 5a bitartean. Bestalde, lanak maiatzaren 7ko 19:00ak arte aurkeztu daitezke, liburutegian edo gaztelekuan. Argazkiak erakusgai jarriko dira maiatzaren 12tik 18ra ikastolako ekitaldi aretoan.

VILLABONA ▶

Aritzaren ikastaroaren azken saioak, maiatzean

ERREDAKZIOA

Aritza kultur taldearen *Euskaldunon sustraiak eta memoria* ikastaroa bere azken txanpan dago. Etsizako hitzaldi bat zegoen aurreikusita, baina azkenean maiatzaren 7an eta 14an egingo dira azkeneko bi hitzaldiak. Lehenengoan Lartun Egibarrek Foruak izango ditu hizpide eta azkeneko hitzaldian Iñaki Egaña diktadura garaia iruzur hitz egingo du.

ZIZURKIL ▶ POLITIKA



Sinadura bilketa eskertuz

Erredakzioa ▶ Zizurkilgo ezker abertzaleak elkarretaratzea egin zuen «prozesu eta hauteskunde demokratikoak» eskatuz eta bide batez, eskerrak emateko hautesle zerrendaren sinadura bilketan parte hartu duten guztiei. HITZA

IRURA ▶

Urtebetetze festa gaur Zaharren Biltokian

Zaharren Biltokiak kudeatzaile berriak dituela urtebete igaro da. Horregatik gaur festa antolatu dute. 18:30ean Rafafa magoak bere ikuski-zuna emango du eta horren ondoren haurrek merienda izango dute. Gauean, 22:30ak aldera, Herrera, Borja Blues eta Joselito El Albahicin artisten kontzertua. Ekitaldiari amaiera emateko DJ Bulleek musika jarriko du.

ZIZURKIL ▶

Niño Costrini, V. Antzerki Astea amaitzeko

Zizurkilgo V. Antzerki Asteari amaiera emango diote gaur gauean. Emanaldi berezia izango da Niño Costrinik emango duena 22:30etik aurrera Zizurkil Goiko plazan. Aktore argentinar honek umorea lantzen du modu zentzugabe batean. Jendearen partaidetza bilatzen du eta Antzerki Astea giro onean amaitzeko aukera ederra izan daiteke.

TOLOSALDEA, LASKORAIN IKASTOLA, ZEURE AUKERA

- Kalitatezko heziketa euskalduna.
- Tolosaldeko gazteen Bigarren Hezkuntzarako **ikastola**.
- Unibertsitateko zein Lanbide Heziketarako bide guztiak irekiko dizkizun **ikastola**
- **Batxilergoko eskeintza zabala duelako:**
 - Zientzia eta Teknologia
 - Naturaren eta Osasunaren Zientziak
 - Giza eta Gizarte Zientziak

Izena emateko epea: apirilaren 23tik maiatzaren 4era bitartean
Ikastetxeko idazkaritzan, Usabal Auzoa 26
Orduetgia: 9:00 - 13:00 eta 15:00 - 18:00
Argibide gehiago: Tel.: 943 67 44 28 edo tolosa@ikastola.net

hirukide

gairu berri
jesuitinak
eskolapiok

www.hirukide.org
Tel.: 943 670 311

BALIARRAIN ▶ GIZARTEA



Iazko traste zaharren eta eskulanen erakusketan ikusi ahal izan zirenetako batzuk. HITZA

Jai giroko egunean, loreak, koadroak eta eskulanak izango dira

Txekorra erretzen abilak dira bertakoak eta horrez baliatuz, loreak eta herritarren hainbat erakusketa prestatu dituzte

NEREA URBIZU

Baliarrainen, iazko txekor jatearen eguna ederki igaro zela ikusi ondoren, 2007an berriz egiteko irrikitan geratu zirela esan zuten, eta hala egingo dute. Hain zuzen, bihar izango da txekor jatea herriko pilotalekuan. Gainera, ezaguna da baliarraindarrak txekorra prestatzen abilak direna.

160 lagunek eman dute ize-na biharko bazkarirako. Dena dela, izango dira ekitaldi gehiago; iaz bezala, lore saltzaile bat ere izango da goizean zehar, eta baita Baliarraingo eskulana emakumeek egiten dituzten gauzak ikusteko aukera ere.

Aurtengo berritasunen artean, udaletxean egongo den erakusketa izango da: Eider

Otaegiren margolanak izango dira, bihartik hasita, asteartera arte. Idazkariak esan zuen bezala, «Eider Otaegi ez da herrikoa, baina baliarraindarra izango da laster».

Goizez eta arratsaldez ikusteko aukera izango da. Biharko kasuan 12:00etatik 14:00etara goizez, eta arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara. Etzi eta asteartean, zubia eta jai eguna aprobetxatuz, goizez 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldez, 16:00etatik 18:00etara.

Idoia Sanchez ostegunean

Maiatzaren 3an Baliarraingo liburategian 17:00etan Idoia Sanchez izango da ipuinak kontatzen. Azken ekitaldi hau Galtzaundi euskara taldeak antolatuta du.

EGITARAUA ▶

- BIHAR**
Txekor jatea. Frontoian izango dira 14:00etan.
▶ 160 lagun elkartuko dira.
- Loreak.** Goizean zehar izango dira salgai, 11:30etik aurrera.
- Eskulan erakusketa.** Baliarraingo emakumeek eskulanetan egindakoak izango dira frontoiko arkupean: bihar, goizean zehar.
- Margolanak.** Udaletxeko pleno aretoan Eider Otaegiren margolanak, bihar 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Etzi eta asteartean, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

BEDAIO ▶

Auzoko baserrien argazki erakusketa

Bedaioako Kultur Asteburua pasa bada ere, Artubin aste-buru hartan bertan jarritako Bedaioako baserrien argazki zaharren erakusketa bertan dago ikusgai. Artubi elkarte- an daude eskegita, jendearen gozamenerako: erre egin ziren baserriak, duela 50 urte ingurukoak, gaur egun ezagutzen ez diren baserriak... Bertarutzen direnei atsegin handiz artatzeaz gain, auzokoentzat bezain in-terresgarria den erakusketa ikus daiteke Artubin bertan.

ALKIZA ▶

Aiztondo X. Pilota Topaketako finalak, bihar

Alkizako frontoian bihar Aiztondo X. Pilota Topaketako finalak jokatuko dituzte, 16:30etik aurrera. Aurrebenjaminetan Yerai Arruti, Oier Mujika, Jon Irazu eta Mikel Agirrerren aurka. Benjaminetan, Jon Astigarraga-Jon Iraola, Igor Mujika eta Eneko Zubiaurreren kontra. Alebinak Jon Erasun-Peio Labaka eta Aitor Otaegi-Iñigo Irisarri izango dira. Partidak bukatu ondoren txokolatada izango da bertaraturatukoentzat.

ORENDAIN ▶

Idoia Sanchez eta pailazoan saioak

Maiatzaren 3an, ostegunean, Idoia Sanchez ipuin-kontalaria Orendain bisitatuko du, bertako haurrei ipuinak kontatzeko. 18:15ean udaletxeko areto nagusian izango da. Maiatzaren 4an, Korri, Xaltoa eta Brinko pailazoak izango dira 17:30a aldera. Udaletxeko areto nagusian izango da saioa, eta *Show berria prestatzen* egingo dute. Ekitaldi hauek Galtzaundi euskara taldeak antolatu ditu. Haurrentzat aproposak izango dira ekitaldi hauek.



Korri, Xaltoa eta Brinko. HITZA

ALTZO ▶

Joxe Manuel Odriozolak Jaka saria jaso du

Joxe Manuel Odriozola ailtzotarrak Jaka saria lortu du, saiakera alorrean, *Abertzaleak eta euskara* lanari esker. Hala, 7.000 euroko saria poltsikoratu du ailtzotarrak. Besteak beste, «gaia interesgarria izatea, bai aztergaiaren garapena eduki mailan, bai eta idazkera garbi eta txukunak ere» goraipatu dute epaileek lana saritzerakoan.

ALEGIA ▶

7e Pasa Pilota Txapelketako finala bihar

Alegiko 7e Pasa Pilota Txapelketako finala bihar jokatuko dute, Alegiko pilotalekuan. 17:00etan hasiko dira binakako bi neurketak. Lehenik, Murua anaiak Gari-Berñaten aurka ariko dira, eta bigarrenetan, aurtengo txapel- dunak zein diren erabakitzeko Artola-Galarreta eta Zubeldia-Iriarte izango dira.

hitzarte



Lea-Artibai eta Mutrikuko HITZaren aldeko ARTE ERAKUSKETA

2007ko maiatzaren 4tik 20ra UHAGON Kulturgunean (Markina-Xemein)



GERTAKARIA ▶

Bi gazteren aurrean tiroa bota zuen Guardia Zibilak

Gazteak «ordubete eta hamabost minutu» eduki zituzten geldirik Iruran



Irurako industriagunearen ondoan dagoen hesiaren aurka eduki zituzten bi gazteak. Lurrean tiroak egindako zuloa ikusten da. A, IMAZ

ASIER IMAZ

Herenegun, Guardia Zibilak Ibarra bi gazte geratu zituen identifikatzeko, Irura eta Villabona artean igarotzen den N-1 errepidearen gainetik pasatzen den zubian. Ibarra Garagardo Festaren kartela jartzeko ari ziren gazteak, «ordubete eta laurden» eduki zituzten galdeketa. Amaiera aldean, «armarekin jolasean zebilen Guardia Zibilak tiro bat bota zuen; ihes eginda edo nahita» egindako tiroa lurrera

erori zen, baldosa zati bat zultu zuelarik. Tiroa bota ondoren, «inguruan begira zeuzkan beste Guardia Zibilei, zerbeza batetara gonbidatzen zituela esan zien».

«Gertaerak» urratsez-urrats

Ibarra bi gazte Garagardo Festako pankarta jartzeko ari ziren, N-1 errepidearen gainetik igarotzen den zubian, Irura eta Villabona artean. Tolosatik Donostia alderako pankarta jarri zuten eta beste aldekoa zintzilikatzeraz zihoazen. Urrunetik errepidean Guardia Zibi-

laren kotxeak ikusi zituzten. «Hauetariko hiru, kotxetik korrika jeitsi eta gugana abiatu ziren arrapaladan. Beste bat errepide ertzean geratu zen metrailadorea eskuan zuela gu apuntatzen. Geldi egoteko eta lekutik ez mugitzeko agindu zituzten».

Gazteek, Guardia Zibila iritsi orduko Garagardo Festako pankarta bat besterik ez zutela esan zien. «Pixka bat lasaitu ziren orduan, baina identifikatzeko esan ziguten». Batek dokumetaziorik gainean ez zemanenez, «buru egiten zuen Guardia Zibilak lepoan eskua jarri eta beheko kotxera» eraman zuen. Bestea zubiaren punta batera eraman zuten, hau ere «depotik helduta eta jarriera aldatzen ez bazuen behe-eraman eta kolpatu egingo zutela mehatxatuz».

Ondoren, biak beheran elkartu zituzten, Irurako industrialdere eramaten duen hesi zuriaren aurka jarri zituztelarik, zubiaren eskaileren aldean. Inguruan 4 edo 5 Guardia Zibil zituztela, «aurrez aurre bat jarri zitzaion, 2 metro eskasera. Hau, denen buru egi-

ten zuena, parean metrailadorea gora eta behera mugituz hasi zen jolasean bezala. Bien bitartean galdeketa aurrera jarraitu zuen. Zakurrarekin ongi ibiltzen zara paseatzen eta antzeko gauzak», esanaz. Bitartean, «denen buru egiten zuenak eta armarekin jolasean zebilenak tiro bat bota zuen. Atzera egin genuen zarata entzutean, izugarrizkoa izan baitzen hotsa». Balak lurrean zuloa egin zuen. «Tiro egileak, kaskiloa lurretik hartu eta mespretxuz begiratu ziren inguruko Guardia Zibilengana zuzendu zen: hurrengo erronda berak ordaintzen zuela eta denak zerbeza batetara gonbidatzen zituela esan zien besteei».

«Ordubete eta hamabost minutu inguru» egon ziren bi gazteak Guardia Zibilekin. Amaieran ea pankarta jar zezaketen galdetu ziren ibarretan. «Hauetariko batek hori ez zela legala erantzun zigun, baina ondoren, nagusiak jartzeko baime-na eman zuela eta nahi genuenean egiteko esan zigun. Nahikoa egin genuela erabakita, autoa hartu eta herrirantz etorri ginen».

IBARRA ▶

Bihar moto bira egingo dute Langostinokoek

Bihar 09:30ean irtengo da San Bartolome plazatik moto bira. Lehenik herrian bertan gosalduko dute eta motoak ikusteko aukera egongo da bertan. Langostino Moto Kultur Elkarteak antolatzen dituen biretan hirugarrenak ondorengo ibilbidea edukiko du: Andoain, Urnieta, Astigarraga, Oiartzun, San Antongo urtegia (bertan hamaiketako egingo dute), Lesaka, Doneztebe, Ituren, Ezkurra, Leiza, Berastegi eta Ibarra herriek osatuko dute, guztira 132Km. Izena emateko, 636 40 31 70, 653 01 39 97 edota 670 41 79 15 zenbakira deitu beharko da.

LEABURU ▶

Herri Urratsera joateko autobusa jarri du Udalak

Iparaldeko ikastolek euskal irakaskuntzaren normalizazio indartzeko antolatzen duten Herri Urratsera joateko autobusa jarri du Udalak. Maiatzak 13an egingo den jaira joateko izena eman beharko da Leaburu-Txaramako Udaletxean astelehenean ostiralera. Epea hurrengo hilaren 10ean amaituko da. Autobusa 9 euro ordaindu beharko dira eta 09:30ean Leaburuko Arbola geltokitik irtengo da. Txaraman berriz 09:30ean igaroko da.

IBARRA ▶

Olinpiada Txikietan izena eman daiteke

Urtero bezala, aurten ere Hauspoak Ibarra XIV Olinpiada Txikiak antolatu ditu. Aurtengoa berrikuntzak egongo direla jakinarazi dute antolatzaileek, izan ere arratsalde batean jokatuko dira lehia guztiak. Maiatzak 19, larunbatean, izango dira olinpiadak, izena emateko epea hurrengo hilaren 10ean amaituko da eta Kultur Etxean utzi beharko dira zerrendak. Taldeek gutxienez 12 partaide izan beharko dituzte, antolatutako 6 lehia ezberdinetan parte hartzeko. Froga ezberdinen artean Mus, Eskoba eta Toka jokoak egongo dira. Mendi buelta eta edari nahiz janari dastaketa ere ez dira faltako.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Telefona: 943 69 19 33.

Zerbitzaria. Tolosaldean taberna baterako zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko. 635 74 52 91 / 943 69 43 13.

SALGAI

Autoa. Citroen Saxo VTS. 90 zaldi. 116.000 km. Extra askorekin. 651 70 90 23.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Argazki lehiaketa.

Aurtengo HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea amaitu berri da. Hemendik aurrera irabazleak aukeratu dira. Orain artean bidalitako argazki guztiak ikusteko aukera dago gure webgunean.

LEITZA ▶

Autobusentzat behin betiko geltoki berriak

Udalak jasotako kexen aurrean autobus geltoki berriak jarri dituzte. Honela, Leitzaran enpresaren autobusak gelditzeko tokia Korrenea eta Basumenearen arteko espaloia izanen da. Roncalesarena, aldiz, Banco Central-a dagoen eraikinaren parean kokatuko da.

LEITZA ▶

XV. Eskuz Binakako Txapelketa

Aurrera KEk urtero bezala Plazako Eskuz Binakako Txapelketa antolatatu du eta aurtengoa XV. a izanen da. Txapelketan 15 urtetik gorakoek soilik parte har dezakete eta izenak Plaza Auto-Eskolan eman behar dira datorren larunbaterako, maiatzak 5, 20:00a baino lehen. Bikoteko 15 euro ordaindu behar dira.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ **Taxia:** 670420
- ▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ **Tolargi:** 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ KIROLAK

Aurrera bihar San Cristobalen aurka lehiatuko da etxean

Irabaziz gero, eta fase hau amaitzeko hiru jardunaldi falta diren arren, leitzarrak zuzenean mailaz igoko dira



Aurrerako jokalariek entrenamendu batean, asteazkenean. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Igoera faserako 3 jardunaldi besterik ez dira falta, baina igandean Aurrerak Arkixkilen jokatu duen partida irabaziz gero, zuzenean mailaz igoko litzateke. Ez du, ordea, aurkari erraza, San Cristobal taldea lehenengo doa, eta aurrean leitzarrak Berriozarko jokalarien aurka jokaturiko 3 norgehiagokak galdu egin dituzte.

«Asteburu honetakoarekin batera hiru partida falta dira.

Atzetik heldu diren taldeekin daukagun puntuen aldean konfiantza hartuta, partida irabaziz gero zuzenean igoko ginateke. Gure asmoa da, nahiz eta aurrerago ere aukerak izan ditza-kegun, etxean igotzea, eguna borobiltzeko», diote Aurrerako arduradunek.

San Cristobal lehenengo doa 33 punturekin, hau da, Aurrera baino 7 puntu gehiagorekin eta iguera ziurtatuta daukate. «Igota egotean behar bada erlaxatu antzera etorriko

dira, baina gu ezin gara fidatu, ehuneko ehuna eman beharra daukagu».

Aurrerako jokalarientzat norgehiagoka hau etxean jokatzeak garrantzia berezia du, batek baino gehiagok azaldu duen bezala, «festa polita» bali- litzateke. «Ea jendea gu animatza- zera etortzen den», esan dute aho batez jokalariek.

Berriozarko taldearen aurkako norgehiagoka Arkixkilen jokatu dute, bihar, 17:00- etatik aurrera.

INKESTA ▶ Partida irabazteko aukerarik ikusten al duzu?

ENEKO ANDUEZA

AURRERAKO JOKALARIA



«Zaila da, baina guk etxean jokatzen dugu, eta haiei irabazteko gai den talde b- karra gurea da».

IKER BENGOTXEA

AURRERAKO JOKALARIA



«Partida gogorra izango da, urte guztian ez dute galdu eta orain- goan ere ez dute galdu nahiko».

IÑIGO DE CARLOS

AURRERAKO JOKALARIA



«Berez partida zaila izango da, baina beraien aurkako partide- tan beti huts egite tuntuak egin ditugu».

JOSU MUTUBERRIA

AURRERAKO JOKALARIA



«Aukerak badau- de, gure taldea oso ona da, baina beraien jokari oso onak dituzte. Zaila izanen da, baina etxean irabaztea ametsa litzateke».

J. L. ARRIZURIETA

AURRERAKO ENTRENATZAILA



«Beraien aurka beti zorte txarra izan dugu baina mutilak oso go- gotsu daude eta irabazteko asmoa daukat».

LEITZA ▶ GIZARTEA

Erretiratuen junta berriko kideak aukeratu dituzte

Proiekturik garrantzitsuena jangela da

N. GARZIA

Joan den astean erretiratuen junta berria aukeratu zuten. Lehendakaria, Genaro Sagasti- beltza izanen da, lehendakari ordea, Antonio Alkaraz, diru- zaina, Josefina Aldunzin eta idazkaria, Gloria Irurtia. 4 kide hauetaz gain, batzordekideak

hauek izango dira: Asuncion Lasarte, Bautista Irazoki, Santi Eraso, Maria Josefa Aldunzin eta Patxi Biurrarena.

Gloria Irurtia idazkariak azaldu duen bezala, «proiektu- rik garrantzitsuena erretira- tuentzako jangela izango da, baina oraindik proiektua egin gabe dago».

LEITZA ▶

Etxauri, Lizarra eta Irurtzungo Txapelketak

Asteburu honetan ere Aurre- rako pilotariak hainbat txape- lketatan parte hartuko dute: Irurtzungo Txapelke- tan, Lizarrakoan, eta Etxauri- koan.

LEITZA ▶

Jaunarena asteartean Urretxun

Hurrengo asteartean, maia- tzak 1, jai eguna denez, Jon Jaunarenak bakarka parte hartuko du Urretxuko Txape- lketan, kadeteen mailan, 10:30ean.

Tolosako etxe batean barneko langile bezala lan egiteko emakumea behar da

Tel.: 677 591 621

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko apirilaren 28a, larunbata ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez beroena **16** hotzena **14**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidetuen egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. T.h.c. musika taldearen kontzertua Bonberenean 22:30ean.
Ibarra. Langostino Moto Kultur Elkarteak irteera antolatu du bihar Ibarra San Bartolome plazatik 09:30ean abiatuta. Izen-ematea: 636 403170
Tolosa. 57ko kintoezko urrezko ezteiak betetzen dituzte eta bazkaria egingo dute igande honetan, Sausta jatekian. Izen-ematea, 943-655453 telefono zenbakian.
Tolosaldea. Gaur Bilbon AHTren kontra egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu dute 10 eurotan. Triangulotik abiatuko da 15:15ean eta Anoetako plazan eta Villabonako Olaederra kiroldegian geldituko da.
Tolosaldea. Ulibarri eta Urrats euskaltegiak egonaldiak antolatu nahi dituzte beren ikasleentzako familia euskaldunetan. Familiek 620 euro jasoko dute hilabetero. Parte hartzeko deitu 943 474547 telefonora. Informazio gehiago aipatu telefonoan edo www.egonaldiak.net
Zizurkil. Niño Costrini antzezlea bere saioa eskainiko du Zizurkil Goiko plazan 22:30ean (probakazioa, ironia, sarkasmoa, trebezia fisikoa). V. Antzerki Astearen baitan.

ZINEMA

Tolosa. *La vida de los otros* drama emango dute Leidor aretoan asteburuan: gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Hitzak hegana.*

Goiko irratia (107.0 FM)
12:00. *korrera.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Belardiak ala hondartzak?

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Dagoeneko HITZAK bildu ditu bosgarren edizioko argazki guztiak; epaimahaiak erabakia maitzaren 1ean emango du jakitera



Caceres. Granadilla herrian atera du argazkia Aitorrek. AITOR IZAGUIRRE LASA



Granada. «Ez da harritzekoa Alhambra munduko zazpi leku zoragarrietako bat bihurtu ahal izatea». GARBINE UGALDE



Landak. «Vieux Boucau herrira joan gara». TXEMA ZABALA



Portugal. «Nazaré herriko hondartzan txalupa bakartia». LOURDES GARATE

AGURRAK ▶



ZORIONAK!

Ondo pasa zure ezkontza egunean! Zure ikasle bikiak.



URTE ASKOAN!
Olatz Dorronsoro Eizmendi.
Gaur 7 urte. Zorionak Jon eta denon partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tarte



EDU ETA LEIRE

Zorionak zuen lagun partetik!